

**ABA** TXIKI



S. Prokòfiev

# PEDRO ETA OTSOA



GIDA DIDAKTIKOA

# Aurkibidea



<i>Pedro eta Otsoa</i> ipuinaren gure bertsioa .....	3
Ezagut ezazu orkestra! .....	6
Txotxongilo-ikuskizuna .....	7
Ezagutu Pedro eta bere lagunak .....	11
Fitxak .....	16



Txikientzako testuak tamaina handiagoan idatzita daude, eta aurretik ikur hau dute.



Helduei testuingurua eskaintzeko testuek ikur hau dute aurretik. Informazio hori txikienekin parteka daiteke, nahiz izanez gero.

Atribuciones: icono «Note» por asol\_studio de [www.flaticon.com](http://www.flaticon.com); icono «Rat» por Iconriver de [www.flaticon.com](http://www.flaticon.com); iconos «Family», «Children», «Party», «Musical Note» de [www.flaticon.com](http://www.flaticon.com)

# Pedro eta Otsoa ipuinaren gure bertsioa



Ziur gaude ezagutzen duzuela Pedro eta Otsoa ipuina, otsoa datorrela esanez adarra joz bere herri osoa ikaratzen eta asaldatzen duen mutikoarena. Ezagutzen ez baduzu, zure familiari edo lagunei kontatzeko eska diezaiekezu.




hornitutako lekuan.

Halere, jakizu gure ipuina desberdina izango dela. Bai, ezagutzen duzun ipuinaren izenburu bera du, baina istorio hau berezia da, hainbat arrazoirengatik:

1.-Ipuin modernoagoa da. Eta antzokian gertatzen da, gauza harrigarriak ikusteko aukera ematen dizun agertoki magikoaz

2.- Ipuin... musikala da! «Eta horrek zer esan nahi du?» galdetuko diozu zeure buruari. Bueno, desberdintasunik garrantzitsuena da musika-instrumentuak izango dituela, kontakizunean pertsonaiei zer gertatzen zaien jakiten lagunduko dizuten abestiak joko dituztenak.



3.- Txotxongiloak daude! Badakizu zer diren? Agian, noizbait ikusi duzu ikuskizunen bat pertsonaia dibertigarri hauekin. Bada, gure ipuinean txotxongilo oso bereziak ikusiko dituzu, oso handiak eta, batik bat, kolore eder-ederrez apainduak. Eta,

zuk horrela ikus ditzazun, paregabeko artista batzuek itzaletan nola erabiltzen dituzten kontatuko dizugu.

Ez dio axola ipuina ezagutzen ez baduzu. Pixkanaka kontatuko dizugu, bertako pertsonaiak aurkezteaz batera. Hori bai, nola amaitzen den jakiteko, antzokira etorri beharko zara!

Jakin behar duzun lehenengo gauza da ipuin hau bere sorkuntzatik bertatik dela berezia. Izan ere, ez zuen idazle batek asmatu, musikagile batek baizik. Konpositoreak melodia eta obra luzeagoak sortzen dituzten pertsonak dira; gero, beste musikari batzuek beren instrumentuekin jo edo beren ahotsekin kantatzen dituzte. Eskuinean ikusten duzun jaunak Sergei Prokofiev zuen izena, eta hari bururatu zitzaion ipuin hau idaztea eta hain modu berezian kontatzea. Sergeiren nahia zen haurrek, ipuin bat entzuteaz batera, musika-instrumentuak entzuten eta ezagutzen ohitzea, batzuetan hurbiletik eta zuzenean ikusteko zailak diren instrumentuak, hain zuzen ere.



Musika-tresna asko ezagutzen dituzu? Jakingo zenuke horietako batzuen izena esaten? Ez badituzu gogoan, eska iezaiezu ondoan dituzun lagunei zurekin erreparasatzeko. Ziur uste baino gehiago ezagutzen dituzula!





Sergei Prokofiev (1891-1953) musikagile errusiar ezaguna izan zen, genero-mota ugari arrakastaz jorratu zituena. Moskuko kontserbatorioak haur txikientzako obra didaktiko bat sortzeko eskatu zion, orkestrako hainbat instrumentu ezagut zitzaten, etxeetan ezohikoak zirenak, zehazki.

Prokofievek istorioa sortuta jaso zuen, baina badirudi ez zitzaiola gustatu; hanka-motz zegoelakoan, ipuina berak idaztea erabaki zuen. Hala, narratzailea erantsi zion, obra gehiago hurbiltzeko publikoari, eta bete-betean asmatu zuen pertsonaia bakoitza instrumentu (edo orkestra-instrumentuen multzo) bereizgarri batekin lotu zuenean, haiek erraz ezagutzeko moduko melodia bereizgarria eman baitzien.

Pertsonaia bakoitza dagokion melodiarekin aurkeztu ondoren, narratzaileak ipuineko ekintzaren berri ematen du; hala, pertsonaia batek zerbait egiten duen edo zerbait gertatzen zaion bakoitzean, orkestrak berriro jotzen du pertsonaia horri dagokion doinua, amaiera bikainera iritsi arte.

Obrak hainbesteko arrakasta izan zuen, ezen berehala zabaldu zen nazioartean. Mundu osoko haurrek ezagutzen zituzten melodiak, eta aktore ospetsuek, irrati-esatariak edo beren ahots bereizgarriagatik ezagunak ziren pertsonak atsegin handiz eskaintzen zuten bere burua gaur egun Mendebaldeko musika klasikoko ondaretzat joa den ipuin honetako narratzailea izateko. Gaztelaniaz, bere garaian oso famatuak izan ziren Rafael Taibok egindako bertsioak, Televisión Españolan ikus zitezkeen Jacques Cousteau ozeanografo frantsesaren itsas dokumentaletako ahots ahaztezinak, baita Constantino Romero aktore, esatari eta aurkezlearena ere.



## Ezagut ezazu orkestra!



Badakizu zer den orkestra bat? Musikari-talde bat, non kideak jotzen duten musika-tresnaren arabera multzokatzen diren eta, denek batera, melodia ederrak interpretatzen dituzten. Non? Antzokietan eta kontzertu-aretoetan. Zertarako? Ehunka lagunek zuzeneko musikaz gozatu ahal izateko, mikrofonorik eta gailu digitalik gabe. Eraikita dauden moduari esker, distantzia handira entzun daitezke, inolako laguntzarik gabe. Txundigarria, ezta? Orkestra benetako lana da, ez birtuala, eta talde-lana ere bai!

Orkestrek instrumentu asko biltzen dituzte. Haien soinua oso ozena bada edo gure entzumenari atentzioa ematen badio, gutxi batzuk ikusiko dituzu... esku bateko atzamarrekin zenbatu ahal izango dituzu! Soinu leunagoa badute, ordea, zenbait errepikatuta daudela eta bata bestearen ondoan jartzen direla ikusiko duzu, batera joz beren soinua indartsuagoa izan dadin. Elkarren ondoan egoten diren instrumentu-multzo horiei familia esaten diegu, etxe berean bizi diren pertsonei bezala.

Orkestra garrantzitsua da gure ipuinean, Sergei Prokofievek, gure konpositoreak, pertsonaia bakoitzari orkestrako instrumentu jakin baten ahotsa jarrita zer gertatzen ari den ulertzen laguntzea erabaki zuelako.

Horrela, musikak kontatzen diguna ulertzeaz batera, instrumentu horien izena eta soinua ikasten ditugu. Hori dela eta, ipuineko pertsonaiak eta, aldi berean, orkestran antzeztuko dituzten instrumentuak ezagutaraziko dizkizugu. Baina, lehenengo, antzokian ikusiko duzunaren funtsezko beste kontu bat erakutsiko dizugu: txotxongiloak!

## Txotxongilo-ikuskitzuna



Antzerkian ikusiko duzun ikuskizunean, ipuina kontatzen duen pertsona ikusiko duzu, edozein ipuinetan bezala: narratzailea. Aktore horrek orkestrako musikariekin eta ipuineko pertsonaiekin hitz egingo du. Baina pertsonaia horiek antzezten ez dituzu beste aktore batzuk ikusiko, gure protagonistak txotxongiloak izango direlako. Badakizu zer diren? Beharbada, zuk txotxongilo esaten diezu, baina hitz hori mota jakin baterako bakarrik erabiltzen dugu.

Aspalditik, gizakiak hainbat bitarteko erabili izan ditu istorioak kontatzeko, eta txotxongiloak tresna horietako bat izan dira. Batzuk ezagutuko dituzu, agian:

- Eskuekin edo objektuekin sortzen diren itzalak



- Hariekin mugiarazten diren txotxongiloak

- Eskuarekin mugiarazten diren txotxongiloak



Baina Pedro eta Otsoa ipuinean ikusiko ditugunak oso bereziak dira: argi-mota oso bereziaren aurrean erreakzionatzen duten eta iluntasunean distiratzten diren txotxongiloak. Eta ikusgarriak

guztiak!

Efektu hain bitxi eta harrigarri hori argi-mota oso bereziarekin lortzen da: argi ULTRAMOREA. Baduzu horren berri? Interneten bilatzen baduzu, etxean nola erreproduzitu erraz azaltzen duten hainbat tutorial aurkituko dituzu. Ikertu etxetik!



YouTuben dauden tutorialak aurkitzeko, bilatzailean «Nola egin argi ultramorea» esaldia idatz dezakezue.



Gure pertsonaiak maneiatzen dituzten neska-mutilei manipulatzailerik esaten diegu, beren eskuarekin protagonistak manipulatzeko, gidatzeko eta mugitzeko dituztelako. Eta beltzez jantzita egiten dute, zorutik sabaira ere beltza den agertokian, distantzia jakin batera ikus ez ditzagun eta txotxongiloak... beren kabuz mugitzen direla uste dezagun!



Eszenatokia antolatzeko modu hori kaxa beltza izendatzen dugu.

Eta hemen dituzu ETCÉTERA txotxongilo-konpainiako manipulatzaileak, gure ikuskizuna egingo dutenak eta emanaldia amaitutakoan, oraindik beltzez jantzita, gu agurtzera azalduko direnak.





**ETCÉTERA** Espainiako txotxongilo-konpainia oso arrakastatsua da, duela gutxi agertokian daramatzen 30 urteak ospatu dituen. Enrique Lanz zuzendaria eta sortzaileetako bat buru, konpainiak



lan arrakastatsuz eta proposamen berritzailez jositako ibilbidea egin du, eta ABAO Bilbao Operak haren hainbat ikuskizun programatu ditu: Pedro Maisuaren erretaula, Jostuntxo ausarta, Jostailuen kutxa, Animalien inauteriaz amesten eta, iaz, Andersen, ahatetxo itsusia.



*Pedro eta otsoa* Antzerki Beltza edo Itzalen Antzerkia deritzona da, dirudienez Txinan sortua eta gerora Indiara eta Greziara hedatua. Bere forma modernoa Pragan garatu zen, 1950 inguruan. Jiri Srnec jotzen da bestelako hizkuntza eszeniko bat sortu zuen berrikuntza-korrente honen sortzailetzat.

Argia manipulatzuz, sortzaileek espazioaren pertzepzioa egoki dezakete. Manipulatzailen janzkera beltzak objektuak beren kasa mugitzen direlako ilusioa sortzen du; aktore-manipulatzailak beltzez estalita dituzten gorputz-atal guztiak magia balitz bezala “desagertzen” dira ikuslearen begietara.

Argi ultramorea, argi beltz gisa ezaguna, ikuskizun-mota hauen funtsezko osagaia da, material jakin batzuk iluntasunean distiratzea eta efektu bisual txundigarriak sortzea ahalbidetzen duelako.



## Ezagutu Pedro eta bere lagunak




Pedro gure istorioko protagonista da. Landa-eremuan bizi da aitonarekin, eta haren aginduak beti betetzen ditu... ia beti. Aitonak, etxetik irten behar duen egun batean, gogoraziko dio ez duela etxaldetik atera eta larreetan ibiltzera joan behar, arriskutsua delako. Hala ere, Pedrok aitonaren agindua ez betetzera bultzatuko duten ustekabeko aliatu batzuk izango ditu...


Orkestran, Pedro hari igurtziko instrumentuek irudikatzen dute; musikariek arku bat erabiltzen dute instrumentu horien sokak joz musika egiteko, eta horregatik esaten zaie hari igurtziko instrumentuak. Haien izenak, tresna txikienetik handienara, biolina, biola eta biolontxelo dira. Honelakoa da Pedro irudikatzen duen melodia:

[Pedroren doinua.mp4](#)





Pedroren aitonak baditu urte batzuk, eta jada ez da lehen bezain azkar ibiltzen. Horregatik irudikatzen du fagotak pertsonaia hori, zurezko haize-instrumentuen familiaren barruan tresna handiagoa eta ahoko kurbatua duelako ezaguterraza. Aitonaren melodia, adineko pertsonen ibilera motela gogorarazten duena, honelakoa da: [Aitonarena.mp4](#)



Pedrori, etxeko hesiaren atzean lasai asko dagoela lagun duen txoria aske hegaldatzen ikusita, etxetik ateratzeko gogoa sortuko zaio. Txoria zeharkako txirulak irudikatzen du, zurezko haize-instrumentuen familiakoak; hau, ezagun izango dituzun eta bertikalean eutsita




jotzen diren zurezko txirula eztiak ez bezala, horizontalean jotzen da, eta horregatik du izena zeharkako txirula. Bere soinua, oso kantaria eta azkarra, txorien hego-astindua gogora dakarrena, honelakoa da: [Txoriarena.mp4](#)

Etxeko urmael batean, ahate bat patxadatsu dabil igerian, baina hari ere osteratxo egiteko gogoa piztuko zaio. Orkestran, ahatea oboeak irudikatzen du, zurezko haize-instrumentuen familiakoa, halaber, sudur-tonu oso bereizgarria duena, abesten hasiko bazina eta zure ahotsa sudurrera bideratuko bazenu bezala. Ahatearen doinua, bere urmaelean igerian dagoela, honelakoa da: [Ahatearena.mp4](#)






Katu bat ere badago, katu guztiek bezala gehienbat gogoak ematen diona egiten duena. Hark ere etxetik irtetea erabakiko du. Pertsonaia hau klarineteak irudikatzen du, zurezko haize-instrumentuen familiakoa denak; oboea baino pixka bat sendagoa eta handiagoa da, eta hark baino soinu baxuagoak sor ditzake. Katuaren doinua, askea eta aurretik igarri ezinezkoa, honelakoa da: [Katuarena.mp4](#)



Horrenbestez, Pedrok, bere lagunak aske dabilzala ikusita, etxaldetik ateratzea eta zelaietan hara eta hona egun aparta ematea erabakiko du. Baina ez du inola ere espero bat-batean otso handi bat agertzea, goseak jota dagoena eta oso adimentsua dena. Hala, lagun guztiek aurre egin beharko diote. Otso beldurgarria batera jotzen duten hiru tronpak irudikatzen dute. Tronpa metalezko haize-instrumentuen familiakoa da, eta gainerako musika-tresnek baino soinu askoz ozenagoa dauka. Otsoaren doinuak pertsonaia honek arazoak sortuko dituela iragartzen du. [Otsoarena.mp4](#)



Azkenik, inguruan bi ehiztari dabilza, istorioan protagonismoa izango dutenak. Beren berariazko musika-doinua badute ere, garrantzitsuena da melodiaren amaieran haien eskopetek sortzen dituzten tiroak entzuten ditugula. Tirook tinbalek eta bonboak irudikatzen dituzte, guztiak perkusio-instrumentuak. Berehala antzemango dituzu, soinu gogorra dutelako, trumoiena ere gogorarazten duena. Hona hemen ehiztarien doinua, amaieran tiroak dakartzana: [Ehiztariena.mp4](#)



Imajinatzen duzu zer gertatuko den gero istorioan? Antzokira etorri beharko zara ikustera. Dena den, jakizu jazarpenak, sustoak eta barreak izango direla, eta gure lagunak etxera onik itzultzea lortzeko plan bat antolatzen ikusiko dituzula. Ikuskizunaz gozatzeko aukera galduko duzu?

Etxean egiteko fitxa gehiago erantsi dizkizugu, Pedro eta Otsoa ikuskizunari buruzko materiala osatzen dutenak. Zuen gustukoa izatea espero dugu!



Lan honetan, Prokofievek lortu zuen, melodia bereizgarriari esker, denak ere oso desberdinak, adin guztietako hurrek instrumentuak bakoitzaren tinbreagatik bereiztea, hots, musika-tresna bakoitzak sortzen duen soinuaren nolakotasunagatik; izan ere, horrek bihurtzen du soinu bat giza entzumenerako berezia eta ezaguterraza, eta, batzuetan, nahasgarria izan daiteke. Berezi txalogarria da oboearen, klarinetaren eta fagotaren arteko bereizketa. Zurezko haize-instrumentuen familiakoak, hirurak XVIII. mendetik aurrerako orkestrarako partitura ia guztietan daude, guztietan ez esatearren (XIX. mendera arteko partituretan, egungo musika-tresna horien arbasoak agertzen dira, jakina).

Baliteke haurren batek galdetzea zergatik dagoen zeharkako txirula, metalezkoa izanik, zurezko haize-instrumentuen familian. Erantzuna da tradizioz bere arbasoengatik erabaki zela familia horretan jarraitzea, alegia, txirula ezti edo moko-txirulengatik, jatorrian zurezkoak zirelako. Gauza bera gertatzen da piccoloarekin, familiako tresnarik altuena bera, bere notak tesituraren goialdeko muga daudelako ezaguna.

Prokofievek otsoa deskribatzeko erabilitako hiru tronpak bat datoz Mendebaldeko musikako orkestra-tradizioarekin, non tronpak parekatuta dauden, normalean laukotea osatuz, eta orkestran, tradizioz, 1-2 eta 3-4 zenbakiak dituzte, arabiarrak zein erromatarrak. Tronpek, horrela idatzita, erregistroari dagokionez instrumentuen idazketaren atal nagusia indartzen dute, eta beren familiako edo gainerako familietako instrumentu baxuen eta altuen arteko lotura edo “soinu-itsasgarria” dira. Hain zuzen ere, oso ohikoa da atzealdean agertzea, oso leun, haria edo zura kohesionatzen, edo gogor, orkestrako instrumentu guztiak batera entzuten direnean, hau da, musikalki orkestrako «tutti» (denak, italieraz) izenez ezagutzen den unean.